

Europar, etxebizitzaren, enpleguren, eta gizarte-babesaren arloetako politika publikoetan gehien inbertitzen duten herrialdeetan aurki daitezke gazteen emantzipazio-tasa altuenak

Gazteen Euskal Behatokiak «Krisialdia eta gazteen emantzipazioa Europar. Azterketa bat ongizate-estatuaren ereduetatik» ikerlana aurkeztu du.

Ikerketaren bidez, Gazteen Euskal Behatokiak, batetik, krisiak Europako gazteen emantzipazio-prozesuetan izan duen eragina azaldu du; eta, bestetik, enplegu- eta etxebizitza-politiken arteko lotura aztertu du, baita Europako herrialde ezberdinetako gazteen bizileku-autonomia ere.



Europar biltzen dituen askotariko egoerak konparatzen ditu, kontinenteko ongizate-estatu motak sailkatzen dituzten **best herrialde-talde** abiapuntu hartuta, eta ongizate-estatu gisa ulerturik, hain zuzen, estatuak, zerbitzu publikoen eskaintzaren bitartez, biztanleriaren ongizatea bermatzeko duen modua.

Hala, *ongizate-estatu sozial-demokratikoaren ereduaren* adierazgarri Finlandia eta Suediako errealitatea aztertu dute; *eredu korporatibistaren* erakusgarri, Frantzia eta Belgikako egoera; *eredu liberalaren* adibide, Irlanda eta Erresuma Batua; *komunismoaren osteko ereduarena*, Txekia eta Hungaria; eta, azkenik, *eredu mediterraneoko* herrialdeen egoeraren isla diren aldetik, Italia eta Espainia, non sartuta baitago Euskadi ere.

Azterlana egiteko, Gazteen Euskal Behatokiak Jordi Bosch Medaren laguntza izan du. Etxebizitza-politika publikoetan aditua da bera, bai eta alor hori aztertzen duten Europako zenbait ikerketa-sareren kidea ere, eta Europa mailako hainbat datu-base jorratu ditu Europako gazteen emantzipazio-prozesuak eta etxebizitza-baldintzak aztertzeko eta alderatzeko asmoz.

Emantzipazio-ereduak hainbat faktoreren arteko interakzioen emaitza dira, egiturazko faktoreak eta banakakoak barnean hartuta; baina, zalantzarik gabe, etxebizitza- eta enplegu-politikak dira prozesu horietan eragin eta erraztasun handi eta zuzenak sortuko dituzten sektore-politikak.

Ikerketan berretsi dutenez, **lotura estatistiko hertsia dute emantzipazio-tasa altuagoek eta zenbait tresnek, esaterako, enplegu politika aktiboetan eta enplegu zerbitzu publikoetan egiten den inbertsioak, etxebizitzaren kostuak ordaintzeko diru-laguntzek edota etxebizitza sozialaren sustapenak.**

Gurasoekin bizi diren gazte portzentaje baxuenak dituzten herrialdeek enpleguaren eta etxebizitzaren arloetako politikak uztartu ohi dituzte. Nolanahi ere, ezin ditugu ahaztu, ez testuinguru makroekonomikoaren eragina —batez ere, langabezia-mailari eta higiezin burbuilari dagokienez—, ez eta herrialde bakoitzean ongizate-estatuak izandako garapena.

Emantzipazioa eta enplegu- eta etxebizitza-politikak, ongizate-estatuaren ereduaren arabera (2011ko datuak)					
Ongizate-estatuaren ereduak	Aztertutako herrialdeak	Gurasoekin bizi den 18-34 urteko gazteen %	Enplegu politika aktiboentzat bideratzen den BPGaren %	Alokairu sozialean bizi diren gazte emantzipatuen %	Etxebizitza ordaintzeko laguntzak jasotzen dituen gazte emantzipatuen %
Sozial-demokratikoa	Finlandia	19,9	0,84	26,1	38,9
	Suedia	25,7	0,80	Ez dago daturik	9,2
Korporatibista	Frantzia	33,3	0,68	25,0	35,1
	Belgika	40,9	1,39	9,7	2,4
Liberala	Irlanda	43,8	0,74	15,4 (2)	15,6 (2)
	Erresuma Batua	38,6	0,04 (1)	18,2	14,2
Komunismo ostekoa	Txekia	52,8	0,18	16,3 (2)	3,1
	Hungaria	61,9	0,35	5,6	12,2
Mediterraneokoa	Italia	62,3	0,31	4,1	3,8
	Espainia	53,3	0,69	2,8	5,4

(1) 2009; (2) 2010

Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak eginda, "Krisialdia eta gazteen emantzipazioa Europan. Azterketa bat ongizate-estatuaren ereduetatik" azterlanean oinarriturik.

Ikerlanak, politika horien eta gazteen emantzipazioaren arteko erlazioa agerian jartzeaz gain, gazte emantzipatuek herrialde bakoitzean dituzten bizi-baldintzak deskribatzen ditu eta informazioa ematen du gazte-enplegua eta -emantzipazioa sustatzeko programa eta jarduera jakin batzuen gainean.

Jon Redondo Eusko Jaurlaritzako Gazteriako eta Kiroletako zuzendariak liburuaren aurkezpenean adierazi duen moduan: «Gure ustez, herrialde horietan martxan jarritako politiken emaitzak aztertzeak ondorioak eta informazio baliagarria lortzen lagunduko digu, gazteen autonomia- eta independentzia-eskubideak bermatzeko neurri eraginkorrak ezartzen jarraitzeko».

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

